

Parketarrak maiatzaren 6tik 24ra Donostiako 23 jolasgunetan antolatuko da, euskaraz jolasean aritzeko.

Udaberria heldu da, eta, horrekin batera, Parketarren 2024 urteko bigarren txanda. Izan ere, Parketarrek egitasmoa martxoan, maiatzean eta urrian antolatzen da, astelehenetik ostiralera, 3 astez hilabete bakoitzean. Aldi horretan, Donostiako parke eta plazetan euskarazko jostaldiez gozatu ahal izango dugu maiatzaren 6tik 24ra, auzo hauetan:

Aiete, Altza Herrera, Altza Casares; Antigua Zubimusu parkea eta Mikel Laboa plaza; Añorga, Amara Berri Olaeta eta Rafael Ruiz Balerdi parkea (Karmelo ikastetxearen atzean); Amara, Araba parkea; Egia, Martin Santos eta Atotxa Zelaia plazak; Erdialdea, Arroka plaza; Gros, Katalunia eta Nafarroa Behera plazak; Ibaeta, Igeldo, Loiolako Erribera, Intxaurrondo, Martutene, Morlans, Parte Zaharra Zuloaga plaza, Txomiñenea eta Zubieta.

Hiriko 23 jolasgunetan begiraleak egongo dira euskarazko jolasak dinamizatzeko adinaren arabera bi taldetan banatuta: Zabu Zibu programan, 3-5 urte arteko hurrekin eta haien arduradunekin; eta Txirrintxon programan, 6-9 urte bitarteko umeekin. Jolasa da jarduera honen funtsa, erreminta ezin hobea delako hizkuntza barneratzeko, eta jolasguneetan egongo diren dinamizatzaileek gidari lanak egingo dituzte.

Urteak ditu Parketarrek egitasmoak. Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta auzoetako euskara batzordeek antolatzen dute elkarlanean. Hizkuntzaren erabilera aisialdian indartzeko asmoz sortu zen egitasmoa familiak nahiz umeak kalean jolasean ari direnean euskara erabiltzeko.

2024ko martxoan 1.200 hurrek parte hartu zuten

Eta ekitaldiz ekitaldi, harrera ona izaten du ekimen honek. Urruti jo gabe, martxoko txandan, 1.200 hurrek baino gehiagok parte hartu zuten, eta 228 gurasok edota arduradunek. Parte-hartze datuek adierazten dute jarduera erakargarria dela, eta hurrek zein helduek gustura hartzen dutela ekimena.

Eskola orduz kanpoko euskarazko jardunaren garrantzia

Haurren lehenengo hilabete eta urteetan garrantzitsua da etxeko giroa eta arlo ludikoa euskaraz lantzea. Gero, umea handitzen doan heinean, harreman sareak eratzen hasten da, eta, une horretan ere, oso garrantzitsua da laguntxoekin euskaraz ongi pasatzeko aukerak izatea, lagunarteko hizkera



Prentsa Oharra

indartzea eta komunikazio-ohiturak euskaraz eraikitzea. Parketarrak egitasmoak horretarako baliabideak eskaintzen dizkie haurrei eta familiei.

EGITARAUA

MAIATZA	AUZOA	Zabu Zibu	Txirrint.
6, 13 eta 20 ASTELEHENAK	ALTZA Herrera	17:00 h	18:00 h
	MORLANS	17:30 h	17:30 h
	TXOMIÑENEA	17:00 h	
	ANTIGUA	17:15 h	
	AÑORGA	17:00 h	
7, 14 eta 21 ASTEARTEAK	LOIOLAKO ERRIBERA	17:30 h	17:30 h
	EGIA	17:30 h	17:30 h
	ZUBIETA	17:00 h	
	AMARA BERRI	17:00 h	18:00 h
	MARTUTENE	17:00 h	18:00 h
8, 15 eta 22 ASTEAZKENAK	PARTE ZAHARRA	17:00 h	17:00 h
	ANTIGUA	17:15 h	18:15
	EGIA	17:00 h	18:00 h
	ALTZA	17:00 h	
9, 16 eta 23 OSTEGUNAK	AMARA BERRI	17:00 h	17:00 h
	GROS	17:00 h	18:00 h
	ERDIALDEA	17:00 h	18:00 h
	AMARA	17:00 h	18:00 h
10, 17 eta 24 OSTIRALAK	IGELDO	17:45	
	AIETE	17:00 h	17:00 h
	IBAETA	17:30	17:30 h
	INTXAURRONDO	17:30 h	
	GROS	17:00 h	

(Zabu Zibun arduradunekin parte hartu behar dute umeez)

[Informazio gehiago:](http://www.donostiaeuskaraz.eus) www.donostiaeuskaraz.eus